


**VILLA NERE TXOKO**  
D MAILA**BAENAKO DUKEAREN PASEALEKUA 11****Domingo Ezeizta, 1897.****Deskribapena**

Partzelaren ezaugarriak direla medio, etxeak proportzio bertikalak ditu, beheko solairuaren kota pasealekua baino beherago egonik. Fatxada atzealdetzat hartzen da eta halaxe ageri da nabarmen. Haatik, badiari begira, horma piko bat ageri da beheko solairua eta goiko bi solairuren goialdean, elementu nagusi bilakatzen dena. Horma pikoak zertxa gotikoaren eskemari jarraitzen dio, balkoidun bi habe maila gainjarriz. Balkoirako sarbidea duen pinoiaren ate-leiho bat babesten du. Gainera, hegal armaduraren eta pareen arteko espazioak lamekin bidez dekoratzen dira; ez bisera soilik, hegalaren perimetro guztian ageri da apaindura hori. Haren estiloa XIX. mendearen amaierako udaldirako bizitegietatik dator, eta bilbadura neotudorearen eraginak ditu. Lorategiari eusten dion murrua etxearen lehen fatxada modura ageri da, nolabaiteko nabaritasuna ageri duena eskailera abiatzen den gunean eta terrazaren goiko karelaen errematean. Bere forma eta lerrokatzeei begira, etxe hau alboan dagoen Villa María del Carmenekin lotzen da argiro, eta biek Baenako Dukearen pasealekuko lehendabiziko finkapenen izaera mantentzen dute.

**D mailako babes erregimen espezifikoak.**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: Bilbaduren dekorazioak, estalkia eta zurezko elementuak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.